

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 6an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2020. urtean kultur programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da

BDNS(Identif.): 498852

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bd-nstrans/index>) eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2020an norbanakoek edo kultura antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kultura-egitasmoak.

Bigarrena. Xedea

Gure udalerrian 2020an kultura-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren. ALHAOn 2020ko martxoaren 13 datarekin argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 25.000,00 eurokoa izango da, 2020 urteko aurrekontuan eta 0600 3341 48110 partidaren kargutan.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2020ko martxoaren 6a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE